

Denboraren makina

Iwo Jima: Itsaso Bareko  
uharte koskorra,  
munduko hilerri handiena

- ▣ Ezpalak
- ▣ Argitalpenak

- ▣ Denbora-pasak
- ▣ Makina bat kontu

Thesi

Murumendiko  
damazuloa

ARGIA

# erdiko kaiera

kultura eta aisia

## Alberto J. Gorritiberea

### Pantaila handian, maillot horiarekin

Bere istorioa ez da txikitatik zine zuzendari izan nahi zuen pertsona horietako batena. Denborarekin ordea, konturatu zen zinearen adierazteko modua gustuko zuela eta *Eutsi!* du lehen filma. Ez du gehiegi pentsatzen *Eutsi!* filmarekin zer gertatu dakioken, baina argi du bere bizitza ez dela zinea egitera mugatzen. Bere ametsik politena biharko eguna ongi aprobeztatzea baita, zinearekin edota beste edozerekin.

**Maider Bel darrain**

Argazkiak: Maddi Soroa



# «Logikoa iruditzen zait zuzendarien gainean k

**BEHIN ETA BERRIZ**, urduri dagoela esaten du. Hori entzuteak lasaitu egingo balu bezala. Lotsatia da eta galdera guztien aurrean ongi pentsatzen du zer erantzun. Elkarrizketaren amaieran ez zaio urduritasuna nabari edo ongi disimulatzen du bestela. Ordubetez berrikeretan jardun ondoren, grabagailua itzali eta ahoan irribarrea duela agurtu dugu. Etxera bidean gauza bakarra dut buruan: eutsi!

Filma estreinatu duzue. Zer sentitu duzu *Eutsi!* pantaila handian ikusita? Lasaitasuna. Gozatu egin dut eta egia esan gustura geratu naiz.

Filma egitea zer moduzko esperientzia izan da?

Aberasgarria, nahiz eta gogorra ere izan den. Egia da une kritikoak ere pasa ditugula, nahiz eta ni gauza onekin bakarrik geratzen naizen. Zinemara eramaten diren proiektu oro, oso zailak izaten dira, euskaraz zein gaztelaniaz. Kasu honetan, aurrekontua nahiko baxua zen, eta taldearen inplikazioa ezinbestekoa izan da. Muga asko izan ditugu, eta gure helburua muga horien erruz ezer ez

okertzea izan da. Egunero azterketa bat gainditu behar izan dugu. Ez da erraza, baina guk lortu dugu!

Noiztik zenuen buruan film honen ideia? Esan behar da film hau enkarguzko lana dela. 2005eko azaroa inguruan Baleukok Unai Iturriagari eta niri gaiaren inguruan gidoia idazteko eskatu zigun eta guk 4-5 hila-betetan idatzi genuen. Ez genuen elkar eza-gutzen, baina hori ez zen oztopo izan eta berehala sortu zen *feeling* gure artean.

Sei aste eta erdi iraun zuen grabaketak.

Kontuan hartu behar da pelikula bat grabatzeko egun bat oso garestia dela eta horrek asko baldintzatzen duela iraupena. Gainera, film honetan asko mugitu behar ginen, berrogei leku inguru genituen, eta ekipoa hara eta hona

mugitzea ez da batere erraza. Berrogeita hamar pertsonak osatzen genuen ekipoa, figuranteak aparte. Beraz, denbora neurtu beharreko zerbait zen.

“Gidoia ikusleak ikusi arte bizirik egoten da eta aldaketak ere egunero egin behar izaten dira. Hiru aldiz idazten da; lehenengoz paperean, gero grabaketan, eta azkenik, muntaian”



# produktoreek ontrola izatea»

Zein izan da *Eutsi!* egiterakoan momenturik onena? Eta txarrena?

Momentu txarrak eta onak asko izan dira, baina ni ez naiz txarretaz gogoratzen, egoera guztietatik ikasi egiten baita. Une hobere-nari dagokionez, uste dut oraindik momen-turik hobere-na heltzear dagoela.

Zuk buruan zenuen guztia ikusiko al dugu ikus-leok?

Esan liteke baietz, nahiz eta gidioa ikusleak ikusi arte bizirik egoten den eta aldaketak egu-nero egin behar diren. Gidoia hiru aldiz idazten da; lehenengoz paperean, gero grabaketan eta azkenik, muntaian. Adibidez, hamar planotan pentsatuta genuen sekuentzia denbora falta dela-eta bi planotan egin beharrean izan ginen. Horrelako hainbat egoera pasatu ziren, eta bakoitzean egoerara moldatzen ikasi genuen.

Aktoreetan erreparatuz gero, ia gehienak aski ezagunak dira: Anjel Alkain, Asier Hormaza, Oihana Maritorea, Kandido Uranga, Nagore Aranburu...

Unai Iturriaga eta ni gidioa idazten ari gine-nean aktore horiek genituen buruan, eurentzat idatzi genuen gidioa. Nik nahiago dut horrela idatzi, aktoreak nor izango diren jakinda, cas-tingak egitea ez baitut gustuko. Oso gogorra egiten zait castingak egitea, aukeraketak...

*Eutsi!*k ukitu soziala du. Ez da barrea baino eragiten ez duen filma.

*Eutsi! road movie* bat dela esan daiteke eta ez komedia. Umore puntua badu, baina drama sozialarekin lotuago dago. Filmak errealitate kutsua du eta bi pertsonaien artean errealita-te horren bi alde ikus daitezke: batak alde dramatikoak erakusten digun bitartean, bes-teak umorez erantzuten du.

Euskal Herrian greba kasu batzuk ezagutzen ditugu: Caballito, Naval... Nahikoa gai delika-tua da, ezta?

Caballitoren egoerari buruz informatu nin-tzen apur bat, eta hortik ere zerbait hartu nuen. Hala ere, ez genuen gehiegi pentsatu ea gaia delikatuegia zen ala ez. Konturatu gara bizi dugun gizartearen jarrera kanpora begira "dena ongi doa" erakustea dela, barruan milaka arazo egon arren. *Eutsi!*k



## TXIKIPOLIT JATETXEA

Musika plaza.

20800 Zarautz

Tel: 943 83 53 57

e-posta: [info@txikipolit.com](mailto:info@txikipolit.com)

web orria: [www.txikipolit.com](http://www.txikipolit.com)





## Alberto J. Gorritiberea

erdiko katera

hori irudikatzen du eta horregatik uste dut jende asko identifikatuko dela pertsonaiekin.

Zer da zuretzat film duina egitea? Niretzat duintasuna gauza askok osatzen dute, alde batetik istorioa bera duina izatea, bestetik kontatzen duzuna interesgarria izatea eta azkenik, sorturiko mami horrekin gustura sentitzea. Filma aurrera ateratzeko guztion ausardia eta inplikazioa ezinbestekoa izan da.

Produktoreek dirua jartzen dutela kontuan hartuta, zuzendariok askatasun osoa al duzue zeuon lanean?

Askatasuna neurri batean daukagu, eta horrek alde onak eta txarrak izan ditzake. Logikoa iruditzen zait zuzendariaren gainean nolabaiteko kontrola egotea produktorearen aldetik eta zuzendariak muga batzuk izatea, zinea mugetan egiten baita. Ikuslearengan ere pentsatu behar da apur bat, alderdi komertzialari erreparatuz, eta kasu horietan, produktoreek asko laguntzen dute. Ondo deritzot produktoreek muga horiek jartzeari. Izan ere, ziur nago nik adibidez askatasun gehiegi izan-go banu estres puntu hori galdu egingo nukeela eta gauzak asko aldatuko lirakeela. Esan daiteke muga horiekin lan egitea maite dudala neurri batean.

Euskarazko filma egiterakoan dirua lortzea al da zailena?

Bai, baina gaztelaniaz egiterakoan ere gauza bera gertatzen da. *Eutsi!* euskara hutsez egina dago, baina gaztelaniazko azpitituluak ditu. Euskal Herrian bizi dugun errealitateak hori egitera behartzen gaitu. Gainera, Euskal Herritik kanpo Madril eta Bartzelonan ere ikusiko da filma. Guk guztia itzulita ikusten dugun arren, Europako herrialde ia gehienetan filmak bertsiio originalean ikusten dituzte. Horregatik, guretzat oso pozgarria izan da filma euskaraz mantentzea eta azpitoluekin itzultzea.

### *Eutsi!* talde lanaren fruitu

- 3 Zuzendaria: Alberto J. Gorritiberea
- 3 Aktoreak: Anjel Alkain, Nagore Aranburu, Asier Hormaza, Oihana Maritorea eta Kandido Uranga
- 3 Gidoia: Unai Iturriaga - Alberto Gorritiberea
- 3 Musika: Bingen Mendizabal
- 3 Argazki zuzendaria: Javi Agirre
- 3 Produktzio zuzendaria: Asier Bilbao
- 3 Produktoreak: Baleuko SL, Irusoin SA, Barton Films SL



Euskal Herrian zine zuzendari gisa bizi al daiteke? Galdera honi orain arte ezezkoa erantzungo nioke, baina azken urte honetan zine zuzendari lana egitetik bizi izan naiz.

Azken urteotan bat-batean euskarazko filmak hasi dira estreinatzen. Zer gertatzen da?

Nik galdera alderantziz aurkeztuko nuke: zer gertatu da hainbeste urtetan euskarazko pelikularik ez estreinatzeke? Dirudienez, administrazioa konturatu da kalean euskara entzuten bada, zinea euskaraz ere egin daitekeela. Euskarazko zinemagintza normalizazio egoera batean dagoela esan daiteke, azken batean, urteko euskarazko filmaren topikoa alde batera utzita, *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* estreinatu eta sei hilabetera egin da *Eutsi!*. Badakigu aurreko bi pelikulak –*Aupa Etxebeste!* barne– komediazkoak zirela eta gurea ez, badakigu baita besteak egun seinalatueta estreinatu zirela eta gurea egun arrunt batean egingo dela. Ez dugu aurreko guztiarekin apurtu nahi izan, dena naturaltasunez gertatu baita. Horrek guztiak euskal zinemagintza normalizazio egoeran barneratzen ari dela erakusten digu.

Noizbait pentsatu al zenuen guztia hain azkar egingo zenuenik?

Kar, kar, kar. Nik lehenago egingo nuela uste nuen.

Zein da zure ametsa?

Biharko eguna ondo aprobetxatzea, horixe da nire ametsa.

Beste proiekturik baduzu esku artean? Batzuk badaude, baina oraindik film honekin gauza batzuk egin behar ditugu. Ate hau itxi behar dugu eta gero irekiko dugu hurrengoa. **n**

<http://www.argia.com>  
helbidean, *Eutsi!* filmari buruzko bideoa.